

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

109n. Zenbakia **Bagilla**  
1987



## **ONAINDIA'tar Alberto**

- Izari trebea
- Errizale bizia
- Jakintza-gizona
- Bear leku Euzkalerriren omene

## GORRI ADISKIDE ZINTZOARI ERANTZUNA

Irakurri dot, Gorri, aldizkari onen bidez zuzendu daustazun eskutitza. Bat nator zurekin, diñostazun guztian.

EAJ alderdia zatitu yakulako aurkitzen zara mindurik (eta badozu, bai orixe, zertaz mindu!) eta zatiketa orren sustraiak argira erakartzen saiatzen zara. Badozu, bai noski, ori egiteko eskubidea, eta, gaiñera, egin bearra dogun gauza da, biar-egunekok jakin daien gaur-egunekook zer egin dogun.

Alare, Gorri, nere iritiz, gu gaurko egunean bizi gara-ta, gure lenen eginkizuna gure gaurko egoera, adimen otzez, errañetako berotasunik gabe, aztertu ta ezagutzea dogu, zalantzarik gabe. Ez al yatzu iduritzen, Gorri, auetxek dirala gure egoera mingarri onen atalik nabarmenenak?

– Zatiketa egiñik dago. Baiña zatiketa ori ez da abertzaleen adimenetatik sortu; abertzaleen biotzetatik sortu da. Bi zatietan, oldozkera berdiña da. Berdiñak dira alderdikideen elburuak, berdiña abertzaletasuna. Orregaitik, zati bateko abertzaleek zor dautsee eraspena, jeta adiskidetasuna!, beste zatikoei.

– Ori ala dalarik, Karlos Garaikoetxea'ren jarraileek, alderdi zarrerako abertzalerik geienak, EAJ'n gelditu zirala kontuan euki bear daben gauza da. Eta Xabier Artzalluz'ekin jarraitzen dabenek, era berean euki bear dabe kontuan alderdi zarraren ia erdia EA'ra igaro zala.

– Zatiketaren egiako arrazoa, sikologiaren barrutikoa dogu: alderdikideek zaletasun eta maitakeri geiegi erantsi dautseez alderdiko buruzagiei. Franko'ren diktaturapean larogei urtez bizi izatearen ondorio dogu ori. Diktatura, ain zuzen, orixe besterik ez bait da: zalekeri guzia, maitakeri dana, gure etorkizun osoa, buruzagi baten eskuetan ipintzea.

– Azkeneko amar urte auetan, Alderdia berbiztu zan ezkerro, izen aundiegia eta almen geiegi izan dabe buruzagiek Alderdiaren barruan. Sabin'ek gura izan ebanez, Alderdian ez da, jE DA!, agintaririk, ez da egiako buruzagirik. Agintari bakarra, Alderdiko oiñarri-jendea da: “basea”. Besteak, danak, oiñarriaren ordezkarri uts besterik ez dira: oiñarriaren morroiak.

– Alderdian ordea, agintzen oiñarria egon bearrean, buruzagiek egon dira agintari! Ori ere diktaturaren ondorioa dogu. Berrogei urtez, ez dau Alderdiak bere alderdikideek Sabin'en oldozkeraren araura ezitzeko adiontasunik izan. Ezin izan dau bere gaztedirik prestatu. Franko ilda atek zabaldu ebazanean, jende multzo aundia etorri yakon jende abertzalea geiena, baiña diktaturak nagitua, politika-gaietaz arduretzeko oiturik gabea, ori bait da diktaturaren zertasuna: jendea politikan ez sartzea.

– Zuk ondo diñozunez Gorri, ez ziran ain abertzaleak, buruzagi izateko asmoz Alderdira suntu yakuzan juantxo lotsarik gebeak. Alderdira sartu aurretik, beste bide batzuetatik asi-ez-asi ere ibilli ziran. Pentsatu eben, adibidez, ESEI'n, ESB'n, edo beste sozialismu-mota batzuetan, “Razione presepii”, “ganbela-billa” urbildu ziran Alderdira; Alderdiko ganbela janari goxo mardulez beste aiek baiño betegoa zala ikusi bai eben! “Ganbelariak” dira; “pesebristas”; ez egiako abertzelek.

– Egiako abertzaletasuna, gaur ere, oiñarriko jendeetan dago. Bi zatietako oiñarri-jendea, beti egongo da Euzkadi'ren serbitzura. Ez, buruzagiak; auek, lendabizi, beren buruen serbitzura egongo dira. Foot-ball taldeetako ostikolariak bezalakoak dira. Gaur, emen, emen ondo saritzen nabelako; biar, an, an obeto saritzen ba'nabe. (Badakit, esan dotanak ez daua burukide guztientzat balio, baiña bai, nere ustez, geientzat).

– Zer egin? Bi oiñarrietako jendeak alkartzen saiatu. Gauza gaitza. Burukideak alkartuko dira beren artean, ori konbeni

yakela ikusten dabenean. Footballariak bezalakoak dirala!!! Zailago izango yaku oiñarrietako jendeak alkartzea. Bata beste askoz geiago gorrotatzen bait dau gaur-egun oiñarrietako jendeak, an goian buruzagiek alkar baiño.

Alatagutziz, bada bi oiñarrietan mindurik bizi diran ziñezko abertzaleak, eta beste gauza guztien gaindik Alderdiaren batasuna amesten dabeneak.

Etorri berriak dira neregana, donostiar batzuk, Amele Arzelus'ek ekarriak. Alderdia zatiturik ikustearen miñak ez dautsee pakean bizitzen uzten, eta Alderdiaren batasuna ber-osotzeko, bi zatietako oiñarrietan egiak abertzale diran jendeen artean lanean asi gura leukee. Nola? Asi beintzat, amabost egunero batzar batzuk egiñaz. Lana nola egin eta lankideak nola irabazi, batzar oietan aztertuko leukee. Eginkizun guztiaren elburua, jende abertzaleari onako gai bereizi auen maitasuna erakustea izango litzake:

1.<sup>a</sup> Aberria. Alderdi eta alderdikeri guztien gaindik, Aberria!

2.<sup>a</sup> Alderdia. Alderdiko buruzagi eta pertsona guztien gaindik, Alderdia!

3.<sup>a</sup> Oiñarria, “basea”. Alderdiaren barruan, oiñarriari zor zaion garrantzia esnaarazi bear da alderdikideen buruetan eta zor jakon eraspena, Biotzetan. Oiñarriak izan bear dau alderdikide bakoitzarentzat Alderdiko gauzarik nagusiena eta sagaratuena.

4.<sup>a</sup> Buruzagiei, lapurretan berenganatu daben nagusitasun guzia kendu bear yake. Jainkotxiki biurtu dira; jainkotxikitasun oroz erantziak izan bear dabe. “Desmitifikatuak”!

5.<sup>a</sup> Oiñarriko jendeak daben erantzukizun edo erresponsabilitate larriaren ezaguera piztu bear da oiñarriko jende danetan. Gaurko buruzagiek ez dabe sekulan Alderdiaren batasunik egingo. Ez dabe batasun ori nai. Alderdia batzen ba'da, danak buruzagi izaterik ez bait dabe izango. Oiñarrietako abertzaleek bakarrik egin daikee, jeta egin bear dabel, Alderdiaren ber-batasuna.

6.<sup>a</sup> Euskerarari-buruz, betiko Euskera, lau-eratan-bat betiko Euskera izango da gure Euskera. Ez dogu nai, zailtasunak ipiñiaz Euskera neketsu, aspergarri, jeta iguinagarri!, egiten daun “batuarik”.

7.<sup>a</sup> Alderdiak ez du “konfesionala”, ots, erlijio-bateri-lotua izan bearrrik, baiña euskaldun kristauak Alderdi berbiztu orretan alderdikide izan leitekezan, gizarte-arazo guztietan Elizaren aginduen esanera egon bear dau.

Idazlan au irakurtzen dabeneatik norbaitek donostiar oiekin batera lanik egin gura ba'dau, idatzi beio Ondarru'ra Gorri Jaurari. Abertzale bikaiña, Gorri; euskal-liburuak saltzen ere lan ederra egiña.

Ain zuzen, auxe dozue donostiar oiek egin gura daben beste lan garrantzitsu bat: euskal-elerti edo literaturaren zabalkundea. Euskerak, bizitzeko, il zorian dagoanak arnasa bezain bearezkoa dauan lana!

Baitare, idatzi daikezue Donosti'ko “Editorial Edili'ra (Geta-ria 21, B). Andik bidaliko dautseez zuen eskutitzak Arcelus'tar Amale'ri.

Ta, oroi: guk, ez ba'dogu ezer egiten, besteen aurka izketan jarduteko eskubiderik ez dogula!!!

**LAUAXETA**

**ONDOREN LARRIAK**

Aurten betetan dira 50 urte gudea gure artean izan zala eta gudearen ondorenak larriak eta negargarriak izaten dira beti, batez be guda ori erri-barruko jentearen artean izaten danean.

Antxiña ez dala gogoratu genduan Gernika erretea eta bagil onetan gogoratu bear dogu mungialdeko errietan izan zan trinzkantzea, Bilbo-inguruan izan ziran goraberrak eta abar.

Ondoren aitzu-eziñak eta samiñak izaten dira gudaldiko eta geroagoko espetzeratzeak eta ilketak be.

**GAZTEEN ERIOTZA**

Gure eleizetan geroago ta ugariagoa izaten da illetara etortzen dan jentea, gazteen illetea danean batez be.

Gaztearen eriotzeak ikutu aundia izaten dau bere sendian eta bere inguruko errian, ikutu aundia baita aberrian be, gazte arduratuak ilten diranean beintzat.

Izan be, gaztearen eriotzea beti da zapuztuta geratzen dan eginbide bat.

**LAUAXETA**

Olako jazoerea izan zan gure Lauaxeta'ren eriotzea, eta eriotzen artean be larrienetariko: Goiz-aldean, illerri bateko orma-ondoan, iltzailleen su-izkilluak begira dirala, bere aurpegi gaztea odoldu ta apurtu arte...!

Bera eriotzarako gertu eta adoretzu egoan, baiña...

Ainbeste urtetako ikasketak eta josulagunen artean eta adiskide onen laguntzaz errizaletuta, izlaritzan, olerkari-tzan eta errigintzan ain lan aundia egiten eban gizona, une larri aretan gudaritzan ain bearrezkoa zana, espetxeratu ta iltea, mingarria benetan erri zapaldu batentzat.

**SAMINTASUNA TA ADOREA**

Agintaritzza gogor are'k amaika kalte egin eutson jakintzari ta erriari. Lauaxeta ez zan izan ildako jakitun eta elerti-gizon bakarra. Baiña biziak bizi-lan egin bear dogu eta erostak alde batera itzi eta itxaropenean aurrera atera bear dogu gure erria.

Adore au artzeko ta errian zabaltzeko gertatzen doguz olako gizonen omenaldiak.

**50N. URTEAN, MUNGIA'n**

Lauaxeta il ebenetik 50n. urtea ospatuko dogu ba Mungia'n il onen 27'an.

Lenengo ta bein, bera euskaldun eta jakintzadun gizona zan ezkerro eta bere bizitzan eta eriotzan fededun lez agertu zalako, iru arlo oneik alkartuko doguz egun orretan: Erriko euskaldun giroa dantza, abesti ta txistuaren bidez, Euskalerriaren kultura berbaldietan eta bere ta gure sinismena opal-maiaren inguruan. Dana amaitzeko eukaldunen arteko bazkaria.

**Euskerazaintza - Euskerazaleak  
Lauaxeta'ri Omenaldia  
(II ebenetik 50n. urtean)**

**NOIZ: 1.987 - Bagilla - 27**

**NON: MUNGIA'n**

**ORDUAK:**

**11'tan** - MEZEA: KEPA DEUNAREN ELEIZAN, (Mungia'ko Abes-Batza) (MUNGIA'KO TXISTULARIAK).

**12etan** - JAKINTZA - EKIÑALDIA Kultur-Etxean.  
 • Lauaxeta'ren olerki ariña: Ume batek.  
 • Itzaldi laburrak:  
 - Lauaxeta abertzalea (Zubiri'tar Iñaki'k).  
 - Lauaxeta Gudaria ta Atxillotua (Aurre-Apraiz'tar Barendin'ek).  
 - Lauaxeta Izparlaria ta Izlaria (Zubikarai'tar Agustin'ek).  
 - Lauaxeta Olerkaria ta Fededuna (Arostegi'tar Luis'ek)  
 • Lauaxeta'ren olerki sakona.

**Ordu 2'etan** - Lagun-arteko bazkaria.

**OARRAK:** - BAZKARIA SOLLUBE JATETXEAN IZANGO DA, ORDAINA 2.000 PEZETA.

- Bazkaltzera joateko ustea dabenak maikide-txartela artu bear dabe Mungia'n Sollube Jatetxen naiz Kepa Deunaren parrokian, eta Bilbo'n EUSKERAZALEAK ALKARTE'an (Colón de Larreategi, 14 - 2.º, eskoia (Urrut. 423 53 22)).  
 - Mungia'ko Txistulari-taldea izango da lagun ekintza oneik alaitzeko.



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

LAUAXETA

Euskalerriko lora ederra,  
Laukiniz'en jaio ziñan,  
egun aretan izar aundia  
zeru goian agertu zan;  
zure irudi arrigarria  
eguzkia egon goian,  
guraso, etxe ta inguruak  
zurekin bat poztu ziran.

Euskal mendiak bikaiñak dira  
jakituriaz josirik,  
indarra dauka lurra mamiñez  
bizi-gaiez indarturik;  
arkaitz zuriak aidean tingo  
lur barruan erroturik,  
ez da trumoirik, ez oiñeztarri  
Laukiniz erraustekorik.

Arkaitz artean asetu zendun  
zure barruko gogo,  
zelai orleian xurgatu zendun  
eder-miñaren gozoa;  
jaioterriaz maite-mindurik,

betetu arnas osoa,  
Euskalerrria izango jatsun  
zure amest gogokoa.

Ainbeste eder zuregandurik  
zu biur ziñan lorea,  
erri guztia usaindu zendun  
zabalduz itz olerkia;  
gure izkuntza goitu zenduan  
irudi barriz josia,  
ordu-ezkero euskerak dauka  
Lauaxetaren argia.

Mungi ederrak ezagutu dau  
zure lanaren bizia,  
sasoiz artu dau zor aundi ori  
ordainduteko bidea;  
etxe onduan ipini dautsu  
burdiñezko irudia,  
zure izena geratu dedin  
maitatzen Euskalerrria.

PAULIN



**GUDAKO ZEREGINETAN**  
(EZKERRETIK IRUGARRENA LAUAXETA)

## EGUNKARIAK IRAKURTEN

Compostela'ko Santiago'ra orain gitxi dala joanda izan dogun Xabier Arzalluz'ek PNV-PSOE'k egindako paktotik urten dan Euskal Jaurlaritza, "coyuntural" egite bat, luzerako epe baten barruan dagoan "estrategia" bat dala; euskal autarkiaren (botoaren) banaketa ikusi ondoren, txostena edo akordua, bearrezkoa, "necesario" izan dala esan eban.

Kostitutuzioa, "únicamente se acata" birresan ondoren, Txomin Iturbe'ren eriotzari buruz egindako edo egin diran auzi batzuk gaitzestu egin ebazan, eta beretzat, Arzalluz'entzat eriotza au astinkada gogorra izan dala baieztatu eban.

Auxe izan zan, gitxi gora berak aitatu ebana, Galicia'n aurkitu zanean EBB'ko lendakaria, Partido Galegista'k konbidauta, eta ikustaldi onetan nazionalismoaren izenean Rosalia de Castro eta Emilio Castelao'ri omenaldi bat egitera joanda.

— Epe luzerako jokutzen dauanarentzat, bidean une "coyuntural" asko dago. Jaurlaritzaren txostena "coyuntiva" bat, besterik ez da. Lau urterako txosten bat. PNV'k jasan dauan banaketa eta gero ortik beste alderdi bat urtea nazionalisten botoak bananduaz, abertzaleen batasuna urrindu egin da. Akordu edo txosten ori egin ez ba-zan, beste auteskunde batzuk deitzea erabagi bear izango zan.

Ez dogu itxaron baiño besterik egin bear izan. PSOE'koek gugana ate joka noiz etorriko, zuur, begira egon baiño ez dogu besterik egin.

— PSOE'ren eta gure ezbardintasunak txostenean argi eta garbi azalduta dagoz; ez dogu batere gure elburuen eskubiderik galdu.

Txomin Iturbe'ren irudiari buruz, gizon zintzoa baiña gogorra, ez egoala bere abertzaletasunaren zalantzarik, eta bere antolaketaren barruan-bertan eban ospeagaitik eta arazoari urtenbide bat aurkitzea bearrezkoa zala ikusten ebalako garrantzi aundiko gizona zala ziurtatu eban.

Azkenez, beralako gizona, Iturbe'lako gizona, batzuentzat terrorista baten irudia dauan gizona begikotzat artzea, gaur egun, edonoren aurrean esatea be gatx egiten dala, azaldu eban.

— Erreza da Txomineri 500 gizonan eriotzea leporatzea. Erreza eta sinplea: Baiña erreza eta sinplea ez da benetakoa izaten— esan eban.

Baleiteke bateko eta besteko gizakiak epaitu aal izateko tenpora asko bear izango dala, eta onetarako, kondairaren barruan Santa Cruz apaizaren irudiari buruz izandako eritxien aldaketa gogoratu eban.

LARRONDO

## OTO ARRANTZAN

Pototo amorrainetan joana dogu Errioxa aldera. Etorri danean Otok galdetu:

- Zenbat amorrain arrapatu dozuz.
- Amorrainak 699.
- Amorrainak ala eskalluak?
- Amorrainak eta ederrak, izan be.
- Zergaitik ez duk 700 esan? Biribillago legoke.
- Amorrain bategaitik zelan asiko nok guzurretan...!?

\* \* \*

Pototo'ren arraiketa ezagutu ondoren, Oto ibaira doa arrantzara kaiñabera luze bat eskuetan dauela. Arbola-azpi batean jesarri da, bota dau kordela eta an dago kortxoari begira.

Artan ari dala, inguratu jako mutil gazte bat. Eta, jantzita egoan lez bota dau bere burua uretara.

Otok bere kaiñabera laga lurrean eta uretara salto egin dau mutilla aterateko. Bigarren aldiz mutilla uretara. Bigarren aldiz, Otok atera. Irugarrenez mutilla uretara eta irugarrenez Otok atera.

- Nik il egin gura dot. Nik il egin gura dot...!
- Baiña, ain mutil gaztea eta sasoikoa izanik zelan arraio il gura dozu...?
- Nik il egin gura dot...!
- Zorokeri arreak kendu burutik. Bizia ederra da.

Mutillak bere garrikoa kendu eta adar batetik bere burua eskegi dau zintzilik. Oto arbolapean egoan eta arbola aretan, ain zuzen. Aldameneko zubian begira zeuden batzuek etorri dira arin-arin korrika, arbolatik zintzilik egoena askatzera. Ekin dabe Oto'ren aurka bizi-bizi:

- Iru alditan atara dozu udetatik gizona eta orain, barriz, bere burua urkatzen itzi dautsozu...?!
- Urkatzen? Nik usten neban, damututa, bere gorputza legortzen egoala.

ANES

## URRENGO AUTESKUNDEAK

Bai irakurle agurgarria, laster doguz urrengo auteskundeak, oraingoan barriz iru aginpidetarako. Lenengo bi batez bere garrantzi aundikoak gure Euzkadi onentzat: Udaltzarakoak eta Aldundietarakoak, geien baten jaurlekuntza bi orreik diralako euzko-erriaren ardatza.

Europa'ko Biltzarrara euzko abertzaleak, ondo landuta aurkitzen diran euzkotarrak bidalduteak, jakiña! ba'dau garrantzia, aundia euki be.

Zergaitik? España'tik bertaratutzen diran ordezkariakandik ez-gaituelako iñoz bere beardan bestean euzkotarrok ezagutuko, egia erdizka edo guzurra ugari eta bearren diran gauzarik jakingarrienak espainiarri ondoen jatorkezan erara azalduak izaten diralako.

Orixegaitik, Europa'rako aukeratzen doguzan ordezkariak be, ondo oldoztuta geure autarkia emon-bearrean gera, gero damutzea izan ez daigun.

Madrid'era ordezkariak bidalduteak be eukiten dau bere garrantzia. Zergaitik? Bertan euzko-erriaren alde zerbait entzunazo bada, euzko abertzaleen abotik entzun da. Ainbat geiagokoa da geure Aldundi eta Udaletxetan abertzaleak eukitea, erraz azkeneko zortzi urteotan ikusu dogunez.

Egiz, orretarako lenen lortu zan, neke asko ondoren, Bizkai ta Gipuzko'n galdurik euki genduban Txinditunben edo "konzierto Ekonomikoa" eta urren Euzko Araudia eta, orrean bitartez bertan Euzkadi'n geratzen jakun txindi bitartez, ainbat eginkizun eder bearkunik asko egin dira Araudia dogun euzko-errietan.

Orretarako, baiña, gizon eta emakume zintzoak bear dira, erria, Aberria maite dabenak, Aldundi ta Udal-

-etxeetan, geien baten azkenengo zortzi urteotan Euzko Alderdi Jeltzaleak euki dituen lez. Eta, orixegaitik egin dira ainbeste ikastola ta ikastetxe, ainbeste erri-apainketa, ainbeste bitxabal barri ta zar-apainketa, ainbeste osatetxe, ainbeste idaztitegi zabal erririk geienetan, jakintzaren leku berezi izan daitezcan eta abar luze bat.

Eta, ori danori edo geienori, eskerrak euzko abertzaleak, beste alderdi politiku askotakoak, garaxika, oporretan daunbadetan eta zaratatsu ibilli diran bitartean lan eta dan ekin dautsoelako, benetako seme-alabak egin bear dabenez. Orretara izango dalakuan gera Euzko Alderdi Jeltzalekoak aurrerantzian bere.

Orretarako, lerro oneik idatzi doguzanerako erririk geienetan aurkeztuak izan dira autagaien zerrendak. Ara emen Galdakano'n EAJ'k aurkeztu dabena: Garzia Borobio'tar Kepa, itsas-gizona, ontzi-burua; Azkagorta'tar Jon-Erramun osagillia; Legarreta'tar Jon ekonomilaria; Irazu'tar Balendin lage-gizona; Sierrasesumaga'tar Patxi; Lage-gizon ekonomilaria; Orue-etxebarria'tar Maribe amnistraria; Ginea'tar Eduardo agin-osalaria; Basabe'tar Xabier osabile-saldelaria; Guadarana'tar Josu ikastuna; Amutxategi'tar Joseba M.<sup>a</sup> irakaslea; Arandiaga'tar Joseba Ontzi-burua; Goenaga'tar Iñaki tximislaria eta abar ogeita baterarte, danak gizon da emakume gazteak eta errian zerbait ondasungarri egiteko gertu datorkiguzanak.

Irakurle agurgarria! ondo oldoztu urren jatorkun bagillearen, Ekainaren amarrean zeure autorkia emon baiño len eta, azkenez, zerrenda onetako gizon-emakumeak emon, erria zintzo jaurtu dagiskuen.

ALTUNA'tar JOSU

### KALE-ORDENAMENTSU BARRIAK

Franco'ren garaiak ziran eta seiscientosa sortu barria izanik, bideak berebillez betetzen asiak. Oto'ren lagun batek topo egin dau onekin Donosti'ko parte zaarrean.

-Kaixooo! Ez aut aspaldi ontan ikusi Oto. Ondo?...!

-Ondo esan bearko, bestela barre egiten jabek-etá

-Eta, errian zer barri?

-Pototo egin dabela alkate.

-Jointxo, jointxo, Pototo alkate...!

-Bai, gizona. Pototo gizon jakintsua dok.

-Eta zer jokabide darama alkate izendatu eben ezkerro?

-Gauzak bere ordenan gustatzen jakozala.

-Eta...?

-Ez dakik ondo zer naaspilla egoan erriko kaleetan... eta ordenamentu barriak sortu jozak: kale batetik joatea libre ba'da, etortzea ez.

-Donostia'n bezela, orduan...? Emendik bai eta andik ez. Ori ondo jagok.

-Gure erria Donosti'ko maillara jasojok Pototok; baiña, nonedonon okerren bat ete dagoan... Zalan-tza ba-jaukat.

-Zergaitik, ba...?

-Atzo zan ordenamentu berri orren lendabiziko eguna, eta badakik zer gertatu dan...?

-Zer?

-Erriko automobillak urten, urten dozak erritik, baiña batek be ez jok oraindik sartzeko biderik aurkitu.

ANES

## Gure URRUNIRUDIZKIÑA

Aspalditik nabil gure urrunirudizkin onen bitarteko jazokizun gaiak azaldu nairik edo obeto esanda, nire eritxiak "euzka?"...? urrunirudizkiñaren jokera dala'ta.

Gure euzkal urrunirudizkin edo urrutirudizkiña (batera edo bestera, bardin dala uste dot) lortu zan garaian, iruditu jatan, lortu zala geien geiena, batez be gure yakintza ta nortasunarentzat.

Ni lez, erria ere poztu zala uste dot. Nik beñik bein, oso atsegiñez artu neban edo ikusi neban euzko urrutirudizkiñaren albistea, ustez, uts utsez, euzko gai aldeko lankaia izango zala'ta.

Diñoten lez, pozaren pozez egon nintzan ustez, lortu gendula euzko giro jator benetako bat, baña egia esan, biotzilduta laga ninduan bereala, ikusirik euzkera ta euzkal gaiak, ez dabela batere ongarritu gure oitura jatorrik, baizik nik ikusten dodana da, atzerakada geiago daukagula gure izakeran. Oitura eta yakintza, oso bastertuta ikusten da gure euzko urrutirudizkiñan.

Bai, igande goizetan eta baita be noizean bein, larunbat eta jai batzutan, euzkal kirol gaiak egiten edo agertzen dira, baña alan ta guztiz be, ez da bear dan añako euzkal girodun urrutirudizkiña.

Bateko "el batua" izkuntz trakets nastua ta besteko *Mahai-Ingurua*, *Muskaldia*, *Luzametralla* ta abar, zentzun bako zantarkeria, ez da euzkal yakintzaren batere ongarrria.

"El batua", okotzeraño sartzen dausku leku guztietan. Izparringiko "euskara" nai dabenak, irakurri, egin leike astiro astiro ia ulerkor edo kaskarrean sartzen dan, baña gure urrunirudizkiñeko "euskara" ulerkaitz izanik, ain bizkor itz egiten daben lez, ez dago edo ez dau astirik emoten itz batetik besterako artu-emonak ulertzeko eta, geienok ibilli bear dogu, estu ta larri gaztelar izkuntza irakurtzen ta, sarritan edo geienetan geratzen gara ao zabalik.

*Luzametrallak*, lautik iru edo geiago, zentzun bako zantarkerizkoak dira. Onekin nik ez dot nai esan maitemin maitetasunaren aurka nagonik, Jaungoikuak emondako gauza bat da, baña, gai guztiak daukiez euren neurriak eta euren orduak. Orreik gauzok, Italia'n diñuen lez, gaberditik aurrerako "metrallak" dira ta ez edozein ordutako.

Orrez gañera, lotsabako izkuntz minduak edo oben birauak, ez dira ondo jausten ba, zori txarrez, gaurko egunez, gaztetasunaren artian be, nun nai, geiegi entzuten doguz ganora eta zentzun bako itz mingotxak.

Orregaitik ba nik beñik bein, ez dot ondo ikusten gure urrutirudizkiñean olako itz mingotxak, baña...!! dirudian lez "revolución cultural"ak aginduko dau eta, "aginduk" tinkotasun guztiakin bete bearko diran lez, guk, ez daukagu besterik, ixildu ta kitu.

Baita be *Mahai Ingurua*'k nire ustez, ez dauka bear dan añako garrantzirik ba, or batzen dira lau edo geiago "jakintsu" eta dirudian lez, aurretiaz, dana antolatuta eukiko daben ustea daukaten lez, dana izaten da baketasuneko *Mahai Ingurua*.

Baña, egunen baten, baten batek, zerbait esan nai badau eta, ustez ez bada "revolución cultural"aren begizkoa, bereala ebagiten dabe, garai baten Basarri ospetsuari jaso gakon lez, iru edo lau bidar bere eritxiak argitaratzen gertatu zanean, an egoten

dan neurtzalleak, bereala ebagiten eban eta Basarri jauna geratzen zan, bere eritxiak argitaratu ezinda.

Mai Inguru ori, nik uste dot izan bear dala, oso askatasun guztikoa eta, burukatu bear bada, askoz be obeto entzulearentzat.

Eztabaidak argitaratzeko, bearrezkoa da aurrez aurrezko askatasun gatza ta ez geienetan ikusten dogun lez, batek esaten dauan eritxia ontzat artzea, ortarako ez dago zertan batu talde-txo bat, naiko izango litzakelako notin bat bakarrik "Euskaldunek hitza" egiten dan antzerako erara eta, Mahai Inguru ori ez da bear ezertarako.

Beste gai lotsagarrikoa ikusten dodana da "Musikaldia".

Gu batez be, abeslari lez, entzutetsuak gara ludi osoan, Ere-soinka abesbatzak emon eban erakusten guk, geure jatorrizko doiñua daukagula eta, onez gañera, atsegingarrikoa dala edozein belarri edo entzulerentzat.

Bai Ruso ta beste ostantzeko abesbatzen añakoak. Guk, era askotako abestiak daukaguz, bata baño bestea alai ta goxoago-kuak, sekula aspertzen ez daben doiñukoak, oso eder ta bikañak, esaera baten, beste edozein añako aukera ugariak, bakotxaren bere erakoak.

Lotsagarria da'ba, gure urrunirudizkin ortan, farra farra erabiltzen daben Rock eta beste antzerako eresiak, ez asiera ta amaiera bakoak, tarte edo utsune guztiak edoze orдутan erabiltzen daben "musikaldia" ziztrin ortan.

Ez al dago iñor, orreik oker guztiak zuzendu leikezan gizonik?...! Ori al'da euzko yakintzaren etorkizuna?...! Ala, gure musika ederrak, ez dauka duintasunik?...!

Nire eritxiak amaitzeko esan nai dot, urrunirudizkiñeko "antzerkiak" be, ez dirala onak edo ez dakidala zelan ontzat artu leitekezan or egiten diran lelokerizko dantza ta zentzun bako atze-aurreko zorotasunak, arpegi marraztu zikiñakin.

Ez al dago or ba euzkal giroko antzerkirik?...! Zergaitik ez dira egiten errikoi antzerkiak?...! ala or be, euzkal usaiñeko antzerkiak, ez dauka tarterik?...! Ala, mamuzko jantziakin eta tximiño antzera apaindurik, obeagoa al da?...! Tamalgarria da bai benetan, gaurko egunez ez eukitea euzko girorako zaletasun geiago.

EUZKADI gaisoa, nora eroan nai zaitue?...!

Gure etorrikizuna, oso illuna ikusten dot, ba, gaurko giroa, "Revolución cultural"era igarri barik beartu gaituen lez, euzkal izakera guztia, aldatu ta geiago aldatzeko arriskun gagoz.

Euzko izakera guztiak, okerrerako joera aundia artu dau eta orregaitik nik, ez dot ulertzen edo ez naiz azaltzen ta gitxiago ez yat sartzen nire kaskarrian, gure agintariak, zelan ez diran jausten euzko izakerak artu daben joera ikusirik, ez dala jatorrizko oitura eta gitxiago sabindartasunekoa.

Bai, esango dogu, Arana ta Goiri tar Sabin'ek sortutako Alderdi'a dala'ta...! larogeitamabi urteko Alderdi'a dala'ta...! Alderdi'a, beste guztien gañetik bereziena dala'ta...! Ainbat gauza, baña...! danak ez badira be, geien geien arauak gauk, "revolución cultural"aren gogozko arauak baño be ez dira.

Noiz itxartu bear dogu?...!

GORRI

---

## **“JAUNGOIKO-ZALE”**

### **Taldearen kondaira laburra ta lanak**

#### **(Bizkaierearen Astean)**

---

Jaun-andreok:

Aurten, “Bizkaierearen Astea” deritxon itzaldi-saillean niri emon dausten gaia, auxe dozue: “Jaungoiko-Zale” taldearen kondaira laburra ta talde onek buruturiko lanak. Beraz, zati bi daukaz nire jardunak: Bat “Jaungoiko-Zale” taldea eta bestea beronek egindako lanak. Geiagoko sarrera baga, lot gakiozan geure egitekoari.

Gauza batzuk, bakarrik baiño, taldean obeto egin oi ditugu. Idazleok, alan be, gauzarik asko doguz bakarrik egitekoak. Ni aurkitu naz ez gitxitan laguntza bearrean, baiña nori laguntza eskatu? Oraintxe berton, Santa Teresa-ren bizitzea daukot euskeraz ipiñita. Iñoiz esan dot neure kolkorako: “Norbaitek lagunduko ba’leust!” Baiña nok lan ori, itzultzaileak ezik, orraztu ta bidean ipiñi? Ba-dira, ba, lan batzuk noberak bakar-bakarrik aurrera atera bear ditunak.

Dana dalarik, emen talde bat daukagu, “Jaungoiko-Zale” taldea. Abade pillo bat, bizkaitarrak ia danak, lenengotan beintzat. Alkarrekin batu dira elburu jakiñari ekiteko. Arima-zaiñak doguz guztiak. Gure erriaren zain-tzaileak, euskalduna ta fededuna dan gure erriaren zaiñak, abadeak eta frailleak. Gure erri euskaldunari euskerazko janaria emon bear jako, euskal janaria bear dau barruan somatzen dauan jan-gosea arintzeko. Ez, ezta egoki jan-jose dan erria jateko barik eukitea. Arima-zaiñai dagokie eleiztarrak bear legez janaritzea.

Alkartu diran elizgizonak, beraz, orretan dabe lan-arlo berezia. Gizaseme langilleok, euren asmoa koroitzeko, al-karte bat sorterazi eben, “Jaungoiko-Zale”. Eta niri zotz-egiñik jausi jatan lanak, bigarrenez esanda be, onela diño: “Nik ez dakit gure irakurle (entzule) guztiak dauken Bazkuna txalogarri onen entzuterik, baiña bai euki bear leu-keela. Lan aundia egin eban “Jaungoiko-Zale” Bazkuneak gure euskerearen alde, Eleizearen ikuspegitik. Talde aundia izan zan eta idazle onak eta ugari batu be bai. Entzungarria izango dogu itzaldi ori”.

Ba-dakizue, ba; nik saiatu bearra dot gai oni buruzko lan betez zuoi atsegingarri izaten. Ez dozuela bazkuna orren entzuterik? Zerbaitez jabetu zaitezen adierazoko dautzuet, eta aitzen emon, “Jaungoiko-Zale” zer izan zan, eta ona nire lenengo jarduna; lan aundia egin eben gure euskerearen alde, eleiz-ikuspegitik, eta ona nire bigarren jarduna; eta talde aundia izan zan, idazle onakaz osotua; eta ona nire irugarren jarduna.

#### **I. “Jaungoiko-Zale” zer zan**

Nik neure “Euskal Literatura”-ren bostgarren liburuan onan idatzi neban, Bazkuna au aitatzean: “Jaungoiko-Zale” lenengo, alkarte bat izan zan, apaiz-alkarte bat batez ere. Kristau-arloan lan egin bearra zegoela-ta, ortarako bildu ziran euskaldun apaiz talde ugaria, millatik gora ziran urte gutxiren buruan” (154 orr).

Barru ta kanpo sentitzen dogun giroak batu oi gaitu geienbat. Fede giroa zan garai aretan, eta euskal giroa; eta orduko elizgizonak argi adierazo ta erakutsi eben izate barru ekarren sua, Jainko-maitasunaz nasteko erri-maitasuna. Arima-zaiñak ziranez, eleiztarrak zaindu ta indar-azo bear ebezan euren bizia zan siñismenean eta Jainko-maitasunean. Euskalduna, ao batez esan oi zanez, “fededuna” genduan, eta arima-zaiñak euren artaldea zaindu bear eben larra gurietan bazkatuz. Beraz, euskal izkuntza ta fedea alkar korapillo samurrez loturik, jagon eta zuzendu bear ebezan euren ardurape egozan ardiak.

Ortarako bakarka baiño taldean lan biziagoa osotuko ebela-ta, Bazkuna bat sortu eben apaiz eta fraille gartsu askoren artean, erriaren izkuntza ta erriaren fedea bero-bero sentitzen ebenen artean. Udabarrian lore erne-barriak lez, itxaropentsu etozan, dudarik bage. Geroak erakutsiko euskunez, lan bikain, giar eta onurakorra egin-go eben.

Orretan ez uste lan berezirik, apartekorik dagienik abade ta prailleok. Orretarakoxe ikasi oi dabe eleiz-karrera luzean apaizgaitegietan eta ikastetxeetan; Jainkoaren barne-deiak bizkor-azorik dagoz, erria, arimak eskolatu ta zeru-bidetik arteztu dagiezan. Eleiz-gizonak, jasez jokaturik, erriaren ondasunak oro zaindu ta kemendu bear ditu, oiturak, fede-aiko-maikoak, familiko ardura ta kezkek, gizarteko eskubide ta goraberak.

Gaiñerakoan, kezka auzi orretan dabil oso-osorik erriak bere-berea dauan izkuntza, berbetea. Orregaitik erria ta izkuntza ez zituen egundo aztu gure lengo abade ta prailleak. Giza-izatea ta izkuntza ez ete doguz gero bata-besteagandik banandu ta bereizi ezin daikeguzanak? Gizonak adimen eta naimen-indarrez sortzen dau izkuntza, euskaldun gisa esanik, buruz eta biotzez. Buruan erne-tan dira pentsamentuak, eta biotzak dautse su emoten. Ortik dator itza, itz asko, eta ortik izkuntza. Gizona naiz emakumea kulturaz jazten saiatzen danak, ba, ezin dau eskolatu nai dauan orren ikuntza albora itxi, ortaz baliatu baiño.



Au onan dalarik, jar dagigun emen bizkaitar idazle azkar baten autormena. Sator-lanean dabiltzanak ba-dira ortik egiaren ura euren guzur-andaparara zuzendu nai dabenak, argiaren seme ez diranak nunbait, euskal erriaren balio ederrik asko abade ta fraillan erruz ondatu dirala oiukatzen dabenak. Biotz-buruak zintzo gaukazanak, baiña, ez diño olakorik.

Lekeitioko seme Eusebio Erkiaga euskal idazle sonatuak, onela: "Euskaldunen herri honetan, nortzuk izan dira euskeraren alde zintzoro, arduratsuen, ekin sakonean jardun dabenak? Arean bere, ehuneko larogetamarreko eduan edo, abadeak eta fraileak izan dira, eleizgizonak, azken mendeotan. Eta XX-garren mende honeren erdiraino be. Banakak izan dira herrigizon euskaltzale langilleak.

"Hemendik urrun, beste herri batzuetan be, elizgiroa herri hizkuntzaren aldekoa izan ei da. Gure artean Eliza katokikoak berak baiño be, abade batzuk eta fraile batzuk arduratu izan dira, beren-beregi, euskerearen onean eta mesedean lan egiteko. Arimen mesedea lortu guran gehien gehienetan, baiña batzuk, ganera alkarpede dan elementu hori, euskerea hain zuzan, egokituago, apaiñagotu nahirik. Horretan, ba, lan egin izan dabe. Lan horik batzuk bide zuzenezkoz egin dabe egin... Abade ta fraile batzuk gainera adimen zorrotza ta argia, erakutsi daukue, gure euskal historian zehar".

Etziran, ez, edozein izan "Jaungoiko-Zale" bazkunan izena emon eben abade ta fraileak. Antxiñako apaiz jatorren antzera, lan oso-betea burutu bear eben euskal errian, eleiztarrak fedean eta euskaltasunean gizonki zuzendurik. Lorategi baten lez emen be ba-ziran onak eta kaskarra-goak, begi-betegarri ziranak. Iñortxori be ezer kendu baga, or egozan oberenak lez Eguzkitza, Manterola, Ibargutxi, Artzubiaga... arlo onetan jardunik, makiña bat frutu umotu emon ebenak. Onein artean, euren zeregin bereziak itxi barik, lan egin ebenen taldea: Azkue bera, Zamarripa, Ormaetxea, Albizuri, Oar-Arteta, Aita Arriandiaga, Ipolito, Lontzi aba, ta gaiñerakoak.

Gero ta geiago zabalduz joian abandotarrak lagateko arnasa. Sukarrieta'n itzali zan a, baiña abade ta fraillan artean jarraille asko itxi zituan or-emen. Orrein artean bagoan oraindik arrobi bikain oparoa, fedeari ta izkuntzari eusteko beti gertu, joandako gizaldietan bizi ta Etxepare, Leizarraga ta Axular'ek mugaz andik, Lizarraga ta besteak Naparroan, Agirre, Ubillos, Gerriko ta Lardizabal'ek Gipuzkoan, eta Mikoleta, Kapanaga, Mogeldarrak, Zabalá, Añibarro, Prai Bartolo, Uriarte ta gaiñerakoak Bizkaian, itxitakoa dudarik bage.

Euskera gaizkatu ta salbau bear zala-ta, Arana'k botatako deadar-oiartzunak izan eban, zorionez, nok erantzun. "Jaungoiko-Zale" bazkunakoak ziran oneik batez be, milla bat eleizgizon. Aren deiari erantzunez eurok be dei ta oi ugin bear. Ortarako, euron zabalkunderako, orri bat, ateraten asi ziran aurrenik, 1912'an. Bazkunaren izena eroian orri onek be, ots, "Jaungoiko-Zale", bereala aldizkari biurtu ta 20 bat urtean bizi joria eroan ebana.

Olako orri ta aldizkariak, barriz, zuzendari bat eskazten, lanak eraz jarri, orraztu, pruebak ikusi ta abar egiteko. Gabriel Manterola, Zeanuri-ko semea, izan zan aldizkari onen len-zuzendaria, eta On Zirilo Artzubiaga ordutik il arteraiño beronen idazkari. Tantai kementu bion gain jaso batez be, "Jaungoiko-Zale" aldizkariak zintzo ta aspertzeke ekin eutson artutako arloari. Amabosterokoa izan zan lenengotan, eta zortzi orri eukazan, 1922'ko urtarillaren lenengotik orraiak ugariturik.

Urteak aurrera, 1917'an, Bazkunaren seigarren batzar nagusia ospatu zan garillaren 4'an. Euskalherri osotik berrogetamar bat bazkide alkartu ziran Zornotza'n. Meza ostean euki eben billera; aurreko urtean egiñiko lan eta diruen garbiketa osotu ondoren, lendakari barria, diruzaiña ta itundari bi aitatu bear zirala-ta, autarkiak banan-banan atera ta gero, diruzaiña ezik besteak lengoak izan ziran autatuak; diruzaintzarako Urriolabeitia'tar Paul, Amantzi'ren anai abadea aukeratu eben. Onan erata geratu zan Bazkunaren eta aldizkariaren Artezkaritza: Landakari, Eguzkitza; idazkari, Artzubiaga; dizu-ain, Urriolabeitia; itundari, Manterola, Lasutegi, Zuloaga ta Ibargutxi.

## II. Lan aundia euskerearen alde

Batasunak indarra dakar, baita dirua be. Diruz ez ebillen txarto "Jaungoiko-Zale". Olan lan obeagoa egingo euskerearen alde. Aitatu dogun Zornotza'ko batzar ostean irarkola, inprenta barria bedeinkatu eben bertoko parrokuak. "Ikaratuta gelditu ziran —diño Artzubiaga'k— bazkideak ain tramankulu ederrak ikusita, amesetako ikuskitzunen bat zala uste eben. Ori ondiño guztia gerturik ez egoala! Alakoxe lan ederrak egiten dauz alkartasunak". "Jaungoiko-Zale"-ren irarkola San Migel kalean egoan, ainbat liburu eder argitaratu ziran bertan. Irar-tresna areik, alan be, zoritxarrez, geienbat suak irumtsi zituan azkenengo gerratean. Nik neure "Milla euskal olerki eder" liburua, inprenta arek eukazan lakoxe tipo txiki, garbi, dotoreak Italia'tik ekarri-azota erabiliz egiña daukat.

Era ta bide askotan zear lan gengike norbere izkuntzaren alde. Zornotza'n egoitza eben bazkunakoak arturik euken euren bidea; danak alkar-leian ortik jarraituz bete-ko eben garbi ta leial euren egokien paper gurena. 1922'an, euren aldizkaria orri geiagoz ateraten asi ziranen, "Urte Barri" titulupean onela iñoen: "Emen daukazue JAUNGOIKO-ZALE mardotuta, barriztuta, apainduta. Len baño orri bi geiago irakurgai ederrez betiak, beste bi iragarki edo anuntzioak ipinteko, azala barriz sendo ta txukuna ta gustijau apaingarri ederrez jantzita, euskaria be errezagoa; aorixe izango da aurtengo JAUNGOIKO-ZALE... Barrikuntza onek gure bazkunaren aurrerapena dikur. Oso txiro jaijo zan bazkun au. Abade txiro batzuk, iñori laguntasunik eskatu barik, ta zarata barik sortu ebenta, ezin besterik izan zitekian. Baiña gero, beronen lan onuratsua agertu darian, bazkidiak geitu dira, laguntzai-

lliak eldu yakoz, kistar zintzoak eskua luzatu dautsia; ta urterik urtera sendotu ta indartu da, beronen argitalpenak ugaritu ta edertuten" (1922-I-1'an).

Aldizkariak gaiñera, 1917'ko urrillean asita, "Eleiz-Orria" be ateraten eben. Mungiko txauburu jaunak bere kontura ateraten eban batez be, ango baserri urrin aurkitzen ziranak be euki egien bertan bizi ziran arimak zegaz janaritu. Jainko-Zale sortu zanetik ebiltzan asmo orregaz, erri bakotxerako orri bat zabaldu. Ba-ziran olakoak, baiña geiago nai zan.

Gazteak be ez eukezan azturik. Eta illero ateraten ebezan agerkari edo orri txiki bai, "Gaztien Laguna" mutilentzat, eta "Zeruko Izpitxoak" Mariaren Alabentzat. Fedearen eta euskerearen onerako lan txalogarria egin zan onetan.

Beste lan bat be, Bazkuna ontakoak gogoz artu ta aurrera eroan ebana, au izan zan: Euskal Kristiñau-Ikasbidearen batasuna. Bost dotriña beintzat ezagutzen ziran aurretik: Markiña aldean Mogel'ena erabillen, Gernika aldean Busturikoa, Durango ta inguruetan Arzadun'ena, Arratia'n bertakoa ta Orozko'n Laudiokoa. Gasteiz'ko Melo Alkalde gotzain jaunagana jo eben eritxi eske eta onek Batzorde berezi bat eratu eban ortarako arduarea bere pentzutuan artu egian. Batzorde orrek lenengo egin ebana, au izan zan: Astete'ren dotriña oiñarriztat artu ta gatzelerazko Kristiñau-Ikasbidea bateratzea. Ori burutu ondoren, urrengo lana naiko erreza jaken: euskal itzulpena etzan izan gatxa. J. B. Eguzkitza'k egin eban bizkaieraz eta Manuel Lekuona'k gipuzkeraz. Ainbat bider argitaratua izan da arrezkero, eta Euskalerrian euki ditugun dotriñen artean eder-ederrena. Euskera, gozo, errez, atsegiñean dago.

Bidean jarri ta ekin ezker, elbururantz goaz apurka-apurka. Olantxe "Jaungoiko-Zale"-koak be. Urteak irauliz eta euren lana biribildu ta edertuz. Eta aziagotuz. Ogei urte beteak zirala, 1932'an, "Jaungoiko-Zale" aldizkariak lengo izatea itxi ta "Ekin" asteroko biurtu jakun. Otsaillaren 6'an azaldu zan lenengo zenbakia, bere aro barriaren aurreneko urtean. Olantxe, beti zintzo, jarraitu eban 1936'ko garagarrikerarte, gerra txinpart zorigaitzokoak ñirñirka asi ziran arte. Eusko-Araudi garaia zan itxuraz aldatu zanean.

Abade ta praille jainko-zale areik, euskalduna osorik, natz kalekoa naiz baserrikoa, eskolatu nai eben. Kalekoak baiño be baserriarrak premiña geiago euken, langille zintzo orren eritxiz. Eta bakartadean, baserrian bizi ziranen-tzat, aparteko saillak ipiñi ebezan euren asterokoan, lugintza, abere, landara, azi ta abar, eta oneik euki edo etorri leikeoezan gaixoak zelan osatu ta, zer ez?

Munduan zer jazoten zan be bai. Gaur beste tresna ez egoan garai atan ango ta emengo albistak jasoteko, eta errez nastau oi ziran guzurra ta egia, gaur beste era batera egiten dan legez. Ba-ziran orduan be gangar aundi batzuk gauza arrigarriak arro ta duban saltzen ebezanak. Eta areik diño: "Guk, euskaldunok, olako tentelkeririk eztogu

ontzat artzen eta artu nai bez. Oin biko patari orreik baiño gizonago gara; burua bere lekuan daukagu; lurrera ezeze gora begiratzen be ba-dakigu ta gorako bidea erakutsiko dauskun argia nai dogu. Au dala-ta zozolistoan asmoak nora garoezan be esango dogu".

Gaur zoritxarrez zabal artuta gaukazan gorriña orduan be bere adarrak erakusten asita egoan. Eta gaitz orren kontra jokatu nai eben, gogoz eta leiatsu jokatu be, Gorriñ orren eragiña salatzen eben beste aldizkari batzuk be ba-ziran euskal errian: or "Jesus'en Biotzaren Deya", 1917'an sortua; or Iruña'ko "Zeruko Argia", Aita kaputxinoen aldizkari apaiña, 1919'an sortua; or Donosti'ko "Argia", Zaldibar'ko seme argi B. Garitaonandia'k zuzendua; or "Karmen'go Argia", karmeldarren errebista, 1931'an sortua; or "Arrati'ko Deya", Gorostiaga abadeak 1931'an sortua. Gustiok, gerra aurretik, lan aintzagarria burutu eben fedearen eta euskerearen onerako.

### III. Talde aundia euskal eta eleiz-lanean

Udabarria eder agertzean ez al dozu iñoiz ikusi, edo entzun, errecondoko zugatz-adar gain pio ta kanta txori-aldra urduria? Bat bakarrik poza zabaltzen, baiña askoren artean poz eta alaitasunezko abesbatz ezin ohea dauskue osotzen.

Edu orretakoa da taldeak dagian euskal lana be. Batak a ta besteak bestea egiñik, adar-arteon kimu gorri-berdeak gorantz doan lez, ekin eta ekin gizartearen onerako, Eleizearen mesederako, euskerearen aintzarako ta iraupenerako, arnas aundiko bearra burutzen dabe. Olakoai, beraz, lotsa ta begirune zintzoa zor dautedu.

Bai, euskaltzale porrokatu genduzan eleizgizon areik, askoren arnasaz talde aundia eundurik, lanari ekin eutsoen. Baiña beti jazo oi dana, talde barruan orreitatik batzuk izaten jakuz lan-arloan nabarmentzen diranak. Emen be olantxe: solo-langille askoz inguraturik, Eguzkitza, Manterola, Ibagutxi, Artzubiaga... izan ziran, fedearen eta euskerearen sail orretan, aurrelari agertu jakuzanak. Bego emen lauron aipamen berezia.

Eguzkitza Lemoarra dogu. Jakituna, ta bere bizitzaldi guztian fedea ta jakituria euskaldun, arteon ereiten alegindu zana. Abadetu ta gero, 1904'tik aurrera Lekeitio'n, gazteak, eleiz-jarrera egin nai ebenak batez be, eskolatzan emon eban bizitza osoa.

Izlari ona izan zan, eta eleiz-itzaldi pilloa itzi euskun, an eta emen errietan egindakoak; euskal jaietan egindakoak be ez dira gitxi. Idazle trebea, "Jaungoiko-Zale"-n, "Euzkadi"-n, "Yakintza"-n, "Ekin"-en, RIEV eta "Euskera"-n agertzen dira aren artikulak. Liburu oneik be berak idatzia: "Garbitokiko arimaen illa; Loretako illa", "Emakume euskotarrak", "Argi Donea" bizkaieraz, "Gizarte-auzia" ta abar. Idazle oparo erreza. Lemoa'n bertan il zan 1939-ko irailaren iruan.

*Manterola* Zeanuri'n jaio 1890'an. Idazle ugaria, gai askori ikutu egiña. Eibar'en arima-zain zala, lan ikaragarria ein eban "Jaungoiko-Zale"-ri arnasa emonez; aldizkari onen lenengo zenbakitik irakurri daikeguz zeanuritar gizaseme erne onen lanak. "Gama" ez-izenez izenpetzen zituan geienez, geroago "Karmel", "Olerti", "Agur" eta abar be ainbat artikulu azalduz.

Orrez gain, ona liburu lez emon euskuzan idazti batzuk: "Goi-izpiak", olerki-txorta; "Ipiuntxoak", "Goi-izparak", "Gotzai-idazkiak" eta abar. Gerra aldi Ingalaterra'ra joan zan, Eusko Gobernuak bialduta, euskal ume pillo bategaz. Etzan an be geldi egon, ingles ikasi ta liburu ugari osotu ebezan euskeraz ta erderaz. Bizitz-azkeneraiño gogoz ekin eutson arimen lanari, autortegian batez be.

*Jon Gurutz Ibagutxi*. Ona beste euskal idazle gotor bat. "Orixe"-k onela bein: "Matxinada aurreko urtietan ondo ezaguna gendun Bizkai-Gipuzkoetan Ibagutxi'tar Jon Gurutz jauna, "Jaungoiko-Zale" ta "Ekin" irakurten gendunon artean. Bizkai'n Egukitza aundia ta Ibagutxi idazle bikotxa lakorik bai ete dogu beste iñundo Euskalerrian? - Biribil esango dot, ezetz" (*Karmel*, 1960).

Ubidea'n jaio zan 1883'an. Eleiz-karrera amaitu ta Zestafe, Marin eta Eskoriatza'n urte batzuk erre ondoren, Eibar'en lan egin eban gerrararte; erbesteratua, an be arima lanari ekin eutson, gero Errioxa'ko Badaran errixoan eta Basauri'n orobat egiñik. Bere jaioterrian il zan 1969-irailaren 14'an.

Liburu asko argitaratu zituen, danak dotriñeari buruzkoak: "Jaungoikoaren Legeko Aginduak", "Eleiz-Ama deunaren Ikurtonak", "Edesti Deuna", "Geroko bizitza", "Otoia", "Siñiskaiak". Euskera ederra dau.

*Zirilo Arzubiaga*. Otxandio'n jaio 1874'an. Eleiz-karrera osotu ondoren errian abestu eban bere len-meza: Azkue'k egin eutson itzaldia ta Arrese-Beitia'k, bertako koplari trebeak olerki sentikorra eskiñi. Karrantza'n eta Orozko'n egotaldi laburrak emon ostean, 1903'tik aurrera, Zornotza'n bizi izan zan gerrararte emengo parrokioko zeregiñetan arduratua.

"Jaungoiko-Zale"-ko idazkari zala, bere etxetik makiñatxobat orri ta liburu zabaldu zituan euskaldunen artean.

Eguzkitza, Manterola ta Ibagutxi'ren lanak berak argitara ebezan, zarata aundi barik, baiña ekin da ekin, beti bere elburura jorik. Gerra ondoren, Begoña'n Klarisa monjen kapellau zala, liburuak argitaratzen jardun eban. Begoña'n bertan il zan 1966'an.

Ona zerbait esana "Jaungoiko-Zale" taldekoen lanari buruz. Lan izugarria abade ta prailleok aragitu ebena, ogetamar urtean aspertu barik aurrera eroanaz, ainbat frutu bikain ekarri ebezana. Eurak eutsi eutsoen gizaldi ontako iru amarkoetan fedeari ta euskereari Bizkaijan batez be. Zelan ori? Onan jokatu eben areik, guk be egin bear dogunez: erri-zugatzean txertaturik, gizartearen eunean eztitu, norbere bizia ta izkuntza emoteraiño orretan alegiñak egiñez; goiegi jo barik, erriaren maillan biotzez ta irakatsiz lanari eguna aterarik. Olan irabazi oi da erriarenetxera ta biotza. Eta modu orretan prest daukagu guk damotsaguna gogoz artu ta egiñez egiteko. Ez gaitzezan izan ameslari, gauzak diran lez ikusi ta arturik, frutuak emoteraiño lan dagiennen artekoak baiño.

Esandako erri-zugatze orren mamiñetik eta ingurutik ezertxo be urrindu barik lanari ekin bear dautso eleizgizonak, jator, egoki ta oso. Kultura aundikoa izan bear dau onakoak, eta beronek daukan gogo-lantze ta kultura ori ezarri bear dautso zainpean daukan erriari be; ots. erria kulturatu bear dau: fedean, izkuntzan, oituretan edo moral kontuan, etikan, eder-senean, gizarte-arazoetan; erria izakera osoan zuzendu, obetu ta lantzen saiatu bearra dau zeozer dan eleizgizonak.

Euskalerriak, eta emen Bizkaiak berariz, izan dau ta ba-dau gaur be, bere jakintza, kultura, gizaldiak itxitako arnasa jori aparta. Berau zaindu ta idar-aztea dagokigu guri. Ez daigun zabarkeriz alperrik galtzen itxi, geuriari baiño arrotzenai txera ebea egiñik. Geure doai ederrai aizkorea erroan jartea litzakigu ori, dongakeri ikaragarria.

"Jaungoiko-Zale" bazkunakoak ez eben ori egin. Euskal-erriak euskal erri danetik berea dauanari eutsi ta su barriz oparoago biurtzen alegindu baiño.

AITA ONAINDIA  
1987'ko orrillaren 7.



## ONAINDIA'TAR ALBERTO

Erririk erri langille gizozte aundiei euren lanaren ardu-rea ta eskubideak azaltzen eutsezan, beti ta beti, beargiñaren onerako. Gure orduko langille-gizartea, pozez, alkar-tzen zan millazako tegietan gizon zintzo ta azartsu orrei entzuten. Iñoiz, ez ziran joan demagogi bidez itz utsaletan erria astindu ta atzipetuten. Gizona, zuzentasuna, erantzupena, lotsa oneko elburu aundiak ziran Aitzol ta Onaindiarentzat. Gizon onen asmoa zan langilleak obetuz, erri ederragoa sortu.

Jendea, eurrez, urreratzen jaken gogorik onenaz entzuten. Edozein langille muetako jendea izan oi eben entzule ta berbaldiak ondo, onartuak ziran. On egin naiaren leialtasuna ta irakatsiaren ziurtasuna ikusten eban langillediak. Baiña onez gaiñera, langilleen ardurazko galderei erantzutea, gogo askoren pozgarri izan oi zan, ta onen bidez osten ziran lan arazoan azalpen gora-berea, berbaldiko jarduna, ondo, argituagaz. Baiña tamalez, egun baten, bigarren galde erantzueren zatia debekatuta geratu zan Gozaiñaren bidez.

Alan be, mendi gailurretik datorren ur-iturri ugaria, lur lauetara joan bear dan lez, gizon erraldoi bi onen jakituria ta ongi-naia be, nola-baiten, gizartearen onera zabaldu bear zan. Emen, daukaguz ba, gertu ta gogotsu arlo barrietan lan egiten: Aitzol euskal elertian ta Onaindia katoliko ekintzan, izar aundi bi Euskalerriko lantegian.

Aldi artako euzko gizarteak gizon osoari begiratzen eutsori. Gorputzeko janaria ta gogoko janaria, biak nai zituan. Gaur, gizaldi erdi, atzerantz, begiraturik, orduko gaztediak arritu egiten nau. Egia nai eban, zuzentasuna nai eban, biziaren zentzuna zein zan ezagutu nai eban. Emengo bizia oso laburra zala ikusirik, ta oster, bizitz egarria amairik gabea zala oarturik, bizitza onen misterioak dei egiten eutsori, ta benetan, alegintzen zan ikasten. Ta ortarako maisu on bat gure artean agertu zan... Erri ta errietan zear joian betiko egarria asetuten daben janaria zabaltzen.

Argia nai eban orduko gaztediak ta betiko egiaren irakasle izan jaken maisu baliotsu au. Guraso eta seme ez eben nai lureko basatzen sartuta euren buruak ondatzerik; Euskalerriak zentzuna eukan buruan ta zuzentasuna zan bere goiburua. Lan-arloa aundi ta ederra zan ta atxurlaria argi ta jatorra; jendearen jokabideak, ondo, agertzen eben legez. Zoritxarreko guda a sortu ez ba'litz, gaur, zer ikusiko ete genduan Euskalerriko zeruan...!

Euskaldun jakintsu dan Jose Migel Barandiaran'ek, oraintsu, Onaindia'tar Albertori buruz esan ebana eta bere loba Luis Barandiaran'ek plazara atera, euskaldun askok, bardin bardin, uste izango dabela, deritxot. "Ona emen, Euskalerriaran alde lanik geien egin dabenetariko bat guda barruan ta ostean, ta bere ainbesteko on egiteak, ia ez dira aintzat artuak izan". Markiñarra dalarik, euskal izkuntza ederrenaren jaube da. Ori dala-ta, nire jardun alditxo au, euskeraz, zor dautsot berari.

Izan be, edozein giza-semek ezta dario norbere izkuntzan. Ta gure ele ederrak erreztasunak, gozotasuna ta jakituria bere-bereak ditu. Onek agertzen dau barren barrendik, gure arbasoen soin, buru ta biotzaren edertasuna. Almen aundikoak ziran antzinatiko gure guraso trebe, aidetsu ta pentsabide argikoak. Onen jatorrikoa da Onaindia'tar Alberto, Euskalerria maite izan ta erri onen seme-alabei on egite, ondo, ornidua, buru, biotz, gogo ta leialtasunez betetu dabena.

Kalean dabillen giza-semeak bere nortasun ederra buru argiz ta biotz ontasunez agertzen dau. Ta biotan alan be, ederrena ontasuna da. Jakintunak onartuak izan dira, mundua euren jakituriaraz argitzen dabelako; baiña jakituria ontasun bereziaz igurtzita doanean, gizonaren barru guztia erosi egiten dau ta ongi-naiez urtu. Olaso agurgarri abadeak, iñoiz, ez eban naigabetu ta iñor baztertzen. Berezkoa eban urko-laguna onartu bearreko doaia. Zenbat gaztek artu ete eben poza ta adorea euren ikastaroetan Markiñako gizon argiarengandik...!

Abade egin ondoren, laster, agertu eban Gazteiz ta Valladolid'en bere nortasuna, apaizgoko gallurretara elduaz, Kanonigo izenez, aldi artan, burruka eginda, oitzen zan eran. Baiña ona emen nire atsedena esan, ta geldi egotekoa ez zan. Gizadiari on egin bear eutsori argia zabalduz ta bizitzan ta lan-bidean era obeagoak sortzen lagunduz.

Egiz, aldi interesgarriak izan ziran arek. Euskalerria, bizi bizirik, egoan erri-zaletasunez ta langille bizikera barri baten egarriz. Gure erria izan be, egizko langillea zan ta zuzentasun zalea. Berezko doaia eukan ortan gizontasunik ederrenagaz batean. Egokia zan ba, erri jator batek bere diñako gidariak izatea ta beste ainbaten artean izar bi agertu ziran: Aitzol eta Onaindia. Zenbat artu-emon, zenbat lan eder egin zituen gizon argi bi onek langilleen artean...!

Baiña sinistu ezindako autua da Kurutzearen izenez, ona egin nai ba'litz bezela, jendea il eta erriak erretoko guda sortzea. Ta burruka ortan sartu eben, zuzentasuna ta bakea nai eban erririk oberena. Geroz, buruko-miñak, ardurak ta norbere erria zaindu bearra leporatu jaken Euskalerriko gizonei. Nekeak aundiak ziran ta lur ontako semeak ez eben atzerarik egin.

Gudan sartzea zillegi al zan? Galdera au, emen, sortu zan ta Erroman argitu eben. Euzkadi ta Erroma bitarteko gizona Onaindia'tar Alberto izan zan. Norbere burua, lurra ta erri eskubideak zaintzea zillegi zala adierazoten emon eutsen, ta ordu-ezkero, gure erria guda oiñean sartu zan beren izate guztiagaz. Nekeak dardaratu ta odolak, oparo, busti eban Euzkadiko lurra. Aldi artako euzko-gaztedia zintzoa, leiala, adoretua ta erriari eskeinia izan zan. Zuen izena ta izana betirako geratu dira eredugarritzat, bai sinismenez ta bai erri-zaletasunez Euskadiko edestian.

Ta erriaren buruzagiak be, utsik barik beraren diñakoak izan ziran. Erritarak izanez, ama lurraren zustraia, ondo, sakonduta euken euren barruan ta erantzupenaren indarra egizkoa zan euren nortasunean. Ta inguru aundi artan, Onaindia ebillen gure erriaren ordezkari Kantzillerietan Jaurlaritzaren izenean. Dana otseintzea ta maite eban erriari on egitea zan. Zenbat joan-etorri, zenbat ardu-ra Euzkadiren izenean...!

Etxeari eusteko arri bakoitza bearrezkoa zan ta lagun bakoitza puntal bat ta gudarako ardu-a aundikoa, baiña

mundua bera arritzeko aiñakoa bat izan zan berezia... Bakez egoan Gernika apurtu lenengo ta gero suzko lerkaiz erre... Gorrotozko jazoera ta mingarria ainbesteko triskantza zitara. Sua, laiñoa, atsa... Jendea nora ezean, ta egazkiñak, Alemania ta Frankotarrak bat eginda, lengo apurtzeagaz gañera, bideak zear joiezan lagun larriak ametralladoraz ilten... Inguruetako lur dana, dardaraz, egoan. Suzko ikusgai arek inpernu gorria zirudian.

Andik ur, ibili ziran Markiñar ama-semeak ere egazkin azpitan, erriaren samin gutzia sentitzen ebelarik. Bere begiz ikusi eban ba Onaindia'tar Albertok Gernikaren ondamena. Arratsalde larria, "Gurutzeko guda" deitu eutsen Jorraillaren ogeta seikoa. Ta urrango egunean, Agirre Lendakariaren aginduz Paris'era eldu zan, Aita Santuaren ordezkaren etxe edo lantegira, Euzkadin zer jazoten zan adierazoten emotera. Atzo Gernikako egazkin azpian ta goiz ontan, emen, ezin izan leiteke esan eutson Nuntzioaren orde, an, aurkitu eban Monziñoreak.

Ikusita egoana ikusita, suaga azpian ibilita egon ta ori entzun bear...! Baiña laster, argitu eutsan burua ta auspez aurrean jarri jakon gure erri martiriaren izenean... Emen daukagu Bizkaiko seme jator bat, erriaren alde bizia, oparo ta gozaro, eskeini ebana. Ta Londres ta Paris'tik irrati bidez berak aiñean, nork ezagutu-erazo dau Euzkadi mundu zabalean...? Gaur, zer zor dautso gizon oneri Euskalerrriak?

PAULIN

## ZER

### ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

### ARPIDETU ZAITE!

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

# ERRIGINTZA

## ONAINDIA'TAR ALBERTO

Goi argia ba neuke  
gizona ikusteko,  
zu zaran bezela;  
ez dot nai bardintzerik  
iñungo gizonekin,  
zerana zarela.

Argietarantz adi  
lurrean zustraiturik  
zugatz ederrena;  
euskal aritz zara, zu,  
giartsu eta lerdan,  
tantai oberena.

Euskaldun baratzean  
millaka lili dagoz  
arrosari adi;  
Markiñako zelaian  
lorerik bakaiñenak  
gizona dirudi.

Malaxko arkaitzpean  
arria eta ura  
dizdizetan dagoz;  
gizonen egarria  
egiaren uragaz  
ase nairik zagoz.

Egille Almentsua  
errukitsua izan zan  
beren argiagaz;  
miñean jarri eutsun  
zurtasunaren doia  
erretzasunagaz.

Zenbat biotz negarti  
ainbeste gizonetan  
zendukezan adi;  
zuk izan bear zendun  
zuzentasun abotsa,  
euskaldun leiñargi.

Kristo ikusi nai dot  
zuga ta pobrietan  
negarrak txukatzen;  
esker-miñetan dozuz  
zure itz entzuleak,  
Olaso goratzen.

Paris'ko Urretxindor...  
Milloi gizonen izar...  
Zapalduen poza...  
Egin zendun on dana  
koro bat bezela da...  
egiaren otsa.

Ona eta egia  
gizonaren itzetan  
bat biurtzen dira;  
au da pozaren garra...  
bizia urraturik,  
gizonei begira.

PAULIN



LAGUNTZEN

Guztiok lurrera ta gizadira begira gagoz. Ain dira deikorrak ta ederrak izan be. Gure mendiak udako onenean dagoz, orlegi ta dizdiratsu. Euren ederraz biotza ta begiak ostu egiten deuskuez barruen dauken bizi joritasunaz ase-tu nairik. Baiña osoan, ezin betetu gaitue. Bikaiñak, jakituzkoak dira, baiña gizonaren izatea orrez goitik dago.

Lurreko pistiak be dei egiten deuskue. Ori dala-ta, jakitunak ta ez-jakiñak, askok esan oi dabe, gizona tximino-tarra dala jatorriz. Pisti orren lagun kutunak dira. Ain garbiak eta zentzundunak dira izan be. Benetan, euren-gandiko jatorri ederraren ondamia emoteko modukoak...!!! Arpegiz, bekokiz, begirunez politak dira, ta usainez, garbi gozoak. Dena den, dana dala, abere artean patxada ede-rrenetarikoak dira. Ta jakituria bide ortatik doa. Nola-baiten giza sorrera azaldu bear ta, burko-miñak sortzen ditu arazo aundi onek. Nire gaurko arloa pisti onek mires-tea ez da. Aspaldi ontan zer ikustera eldu garan, orrek arritzen nau. Lengo baten, ainbeste lan, ainbeste ordu, ain-beste poz...! Ta nora eldu gara... Zer jazoten da mun-duan...!!

Antzina ez dala bei lodien ta bei argalen aldia gogora-zen eustan batek, ta oingoan, argalen aldia zala iñostan.

Esaera orrek bere argia daroa, baiña giza-semeak bizi iza-teko, jan egin bear. Gizon zuzenak izerdiz ta eskubidez irabazitako lan saria eskatzen dabe, ta orrek oraingoan uts emoten dau.

Ta olako egoera larri baten, gizonak gizonarekin zer egin ete leike? Au da gizartearen arazoa: anaïen bear iza-nak ikustea ta bide egokiagoak sortu artean, al dan era onenean laguntzea.

Lan orretan diardu eleizak, Jesusen bideari jarraituz. Bizkaiko eleizeak, lengo urtean, berreun da ogeta iru milloi banandu zituan bear izanean egozanen alde. Jaungoikoa-rengana otoi egiten ta anaïekin sinismen bardiñagaz elei-zan alkartzen dan jendeak emonda batu zan laguntasunez-ko diru ori.

Jaungoikoaren Espirituak dauka indar ori gizonen artean on egiteko. Gogo onak, nai daben tokian, bultz egi-ten dau, ta munduko bear izanen artean dei egin dagiala, lurreko nekeak arintzen.

EGIEDER

GERNIKA  
(50n. urte)

Zer da su-gar ikaragarri au?  
Dardaraz jabilt bizia.  
Arnas barria ittoten daukat.  
Oi! nire errukarria!

Alderdi guztietatik jatort  
sumiñaren karrazia,  
mendi oiartzuna alarauka,  
itzaltzen izar argia.

Arkaitzak orroaka asi dira,  
mendi bizkarrak intziriz,  
zugatzak dardaraz mendietan  
erri dana sugar biziz.

Ibaia gorritu da odolez.  
Lurrak ez dauka arnasarik.  
Bizien oin otsak ixil dagoz  
sasi artean gorderik.

Birikiak ezin arnas artu.  
Oi! gure anai maitiak...  
inpernuaren iruditzarra  
sortu dau suaz etsaiak.

Aittitte sutan kiskaltzen dago.  
Ibil-biderik ez eukan,  
eriotzea artu dau etsita,  
su ta garrez inguruan.

Amamaren deadar samiña  
azken arnasetan dago,  
jaio, bizi ta il Gernikan  
sua baiño gogorrago.

Oiñak apurtuta arri-arte-an,  
alaraua entzuten da,  
begietatik sua darie  
negarrak iges eginda.

Ama, artega, zotin miñez dabil,  
il dan umearen billa.  
Nora zoaz? Arripean dago...  
su garraren erraits pilla...!

Piztiak oiuk ukul gorria  
sua agotik dariela,  
kateiak apurtu nai ditue,  
dana martiri odola.

Eguzkia lotsatuta dago.  
Berotasuna galduta...  
Gernikan dago bero guztia  
txarkeri baltzak sortuta.

Alarau danak entzun nai neukez.  
Min oro biotzeratu.  
Illen azur guztiak ikusi  
ta, ixil ixilik, maitatu.

Gernika, euskaldun martiria...  
Zer diñozu su garretan...?  
Egi ta maitasuna nai ditut  
zuen buru biotzetan.

PAULIN

**ZEANURI'KO SORGIÑAK**

Zeanuri'ko sorgiñai buruz emen ipiñiko dodazan albisteak Valladolid'eko "Txanzillerian" aurkitzen dira, "Pleitotos de Vizcaia" izenburuko arloan.

1572 urtean aurkitzen gara.

Zeanuri'ko bizilagun zan Aranguren'go Pedro'k, Goitia'tar Joan eta onen emazte Mayora auzitegian salatu ebazan "sorgiñak izanik, sorginkeria, siniskeria eta arao (conjuro) asko egiten ebezalako. Eta lurralde onetan euren sorginkeriaz kalte andiak egiten ebezalako".

**SORGINKERIAK**

Mayora andrea, gauez, sorginkerietan ibiltzen ei zan Zeanuri'ko errian, umeak il eta gero euren odola atera eta edaten...

Baita Mayora sorgiñak Orue'ko Martin eta onen emaztea aragian lotuta ezkonduen bizitza ezin egiñez euki ei ditu, eta berak esaten dauanaren testigutzat Orue'ko Santxo ekarten dau, eta onek autortzen dau: Martiaren leenengo egunetan bera, Zeanuri'ko eleizarantza joiala an gizonak egiten daben "Jaunaren Nekaldia" ikusteko asmotan, Goitia'tar Joan eta onen emazte Mayoraren etxera sartu zala. Eta sutondoan jarleku baten jasarrita egoala, Mayora etorri eta bere ondoan jesarri eta biak berbetan asi zirala, eta Mayorak, bera konturatu barik, zerbait kolkoan sartu eutsala, soñekoa josi barik eukan aldetik...

**ELEIZARA BIDEAN**

Gero eleizarako bidean, otz egiten ebalako, eskua kolkoan sartu ebalako, eta zapitxo baten barruan lotuta zerbait aurkitu.

Zer zan ikusteko atera egin ebalako. Begiratu, zabaldu eta barruan sube baten narrua aurkitu ebalako, baita ari bal-tza eta zuria, argizari zati bat, baita bulda zati bat...

Etxera etorri zanean bere emazte Mariari eta bere arreba Otxanda'ri emon eutsela ikusteko, eta gero Ganda-segi'tar Joan Zeanuri'ko alkateari, emon eutsala garded-tako...

Baita Orue'ko Santxo'k autortu eban:

Orain dala zazpi urte, bere seme Martin Emaldi'ko Marina'gaz ezkondu zala, baiña ezkondu aurretik Mayo-ra'k gura izan ebalako Martin bere alaba Mari'gaz ezkon-tzea...

Eta orregatik Mayora sorgiñak, asarratuta, ezkon-barriak euki ebazala lau urtetan aragian lotuta, ezkon-duen bizitza ezin egiñik.

Eta gero bi urtetan andik eta emendik ibili zirala erre-medio baten billa. Eta azkenean erremedioa emon eutsa-nak esan autsala: "ori sorgiñen batek egindako kaltea da". Eta sorgin ori ezin zitekela izan Mayora baiño.

**EPAITEGIAN**

Epaileak itandu eutsan: zuk, Goitia'tar Mayora sorgi-ña dala uste dozu?

Orue'ko Santxo'k onan erantzun eban:

Goitia'tar Joan, Mayora'gaz ezkondu aurretik, Ipiña-zar'ko Marina'gaz ezkondu zan, eta bien alaba Maria, Urutxurtu'tar Prontxigaz gero... Eta Korpus jai bezperan Prontxio'k berak lo egiten eban oian zapo bat ilda aurki-tu ebalako, baita beste gauza batzuk... Eta gauza guztiak batera Zeanuri'ko abadeai erakutsi eta onek gauza guz-tiak eleiza aurrean erre egin ebezalako. Eta orregatik Goi-tia'tar Mayora berak sorgintzat eukala.

Gero epaileak itandu eutsan: Zeanuri'ko errian sorgin asko dagoz? Eta Orue'ko Santxo'k erantzun eban: Bai, Zeanuri'ko errian sorgin asko dagoz, eta kalte andiak egi-ten dabez.

Ango jendeak sorgintzat daukaz: Muguzabal'go Maria, baita Egillor'ko Pedro'ren andrea. Baita Pedro bera be sorgiña zala entzunda eukala. Baita Alday'ko Mari, baita Uribiarte'tar Marina, alarguna... Danak zea-nuritarrek.

**SORGIÑEN AURKAKO EPAIA**

Valladolid'ko auzitegiak Goitia'tar Joan 6.000 mara-bedi ordaintzera zigortu eban, eta Zeanuri'tik kanpora urte betean erbestean bizitzera.

Mayora andrea espetxetik atera, eta asto baten gai-ñean eskuak lotuta, errian zear, lotsagarri erabili eben...

**SORGIN-AUZI ONEN AZTERKETA TXIKI BAT**

Sorgiñai buruz emen idatzitakoa irakurri ezkeroko, argi-tasun batzuk emon geinkez:

a) Valladolid'eko epaileak zein errez ontzat artzen eben, azterketa zeatz eta garbi bat egin barik, sorgiñen aurka egindako salakuntza.

Mayora andrea sorgiña zan proba garbirik ez da ikus-ten auzi guzti onetan.

b) Egia dala Caro Baroja'k sorgiñai buruz esandakoa: sorginkeriarren salakuntza asko auzokoen bendeku edo begantzak zirala.

d) Zeanuri'ko errian 1572 urtean beintzat "Jesusen Nekaldiko" antzerkia edo onen antzeko zerbait egiten zala.



## “AUSKALO”?

Sarritan erabili dot buruan berba au nondik etorri daitekean.

Leengo egunean, gizonezko batek itaun au egin eustan: “Zu, zer da *auskalo*?” “Ori neuk be nai neuke jakin”-erantzun neutsan.

Itxuraz, gipuzkoarrak darabilen berbea da.

Azkue'ren iztegiak ez dakar; ez da agertzen Aita Akesolo'k ezarri eustan “Suplemento al Diccionario precedente” (de Azkue) dalakoan bere.

“Diccionario Retana de Autoridades del Euskera” aztertu eta auxe idoro dot:

“*Auskalo*: ¿Quién sabe!” Eta Nemesio Etxaniz'ek eta Iñurritza'k darabilela diño.

Izan be, “¿Quién sabe!” adierazoten dau. Baiña, ez ete-da izango erderazko “¿A buscarlo!” itza?, “¿Vaya V. a buscarlo!”? Ni baietzean nago.

Zuk, irakurle, onetzaz beste zerbait ba'dakizu, agertu, mesedez, ZER aldizkari onetan.

MEMAIA

### BARRUKOZ

Mintzo apal, ixillez,  
bizitzara gaitezen  
biotz garbi, maitallez,  
norkeri gangar barik  
ikasiz begiratzen  
adikor ta, argirik,  
benetako itzalez.

Aolku jakingarriak,  
Ai!, zenbat onelako  
amumatxoren bidez,  
baitabe, amarenez,  
suaren inguru, gozo,  
kutunkiro ikasiak.

Atez barru, semeok,  
etxeko laratzpean  
barrutik bizi, danok,  
gogo barruz, biotzez,  
anaitasun betean  
bizitzadun ametsez,  
etxekide guztiok!

Neguko orbelduraz  
gorroto aize baltza  
dabil zurrunbilloan;  
aize gogor ta latza  
gizartearen barruan  
zemaizko igiduraz.

Ate barruz, semeok,  
laratzondo ta, gogo  
barruz, bizi maiteok  
apalkiro ta zintzo,  
itza geiegi jazo  
ta, nabarmendu barik,  
mintzo ixiltzu, barez,  
bizia laztandurik  
zentzuz, gizatasunez.

MUNiategi'tar SABIN

### EGINKARIAK

¿Zein ete da mundu onetan  
eginkari andiena?  
Orain zartzarora elduta,  
ikusten dot argiaz.  
Ezta erriak menperatzen  
giz-izen emotiaz.  
Ez, jadetsi mundu onetan  
lekurik garaiena.  
Ez, bioztu donokian,  
Jaun onduan jartia...  
(Anaideunen bien aman  
eskai-zoroskitsua!)

Jauna, auxe da nire naia  
au, neure beresia:  
Jaun altsuen, sari barik  
otseña izatia.  
¿Nun, mundu zabal onetan  
sari bako jopua?  
Makur-makurrik eginda,  
sartuta gurutz-pian.  
Zu bakarrik begiratzen  
juango naz zeure atzian.  
Gurutz aztuna da leuna  
Zu ba zagoz aurrian.

UTARSUS

## **PRAILLEA ETA EPERRAK**

Joxepa, eskongaia zalarik, erriko Erretore jaunaren etxean egoan neskame. Praille bizardun sermolaria euen bazkaltzeko. Orrelakorik zanean, Erretore jaunak beti prestatzen eban kopaturen bat, goxo-goxua, praille gizajoa-ri gosea asetzeko.

Ala gertatu zan egun aretan be: eguerdirako eper pareta euen ederra.

\* \* \*

Kasualidadea izango da baiña, goiz aretan Oto, Joxeparen senargaia, etorri jaken soldauzkatik eta asmoa euen gabea aparti eder batekin Pototo'ren alkarlean ospatzeko. Orretarako gauza egokiagorik eperrak baiño, zer? Otok andregaiari:

—Joxepa, eper orreik emon bear daustazuz apaltzeko...

—Emon? Zelan?

—Ara, neska.

—Eta zer esango dau Erretore jaunak?

—Zuk ezkutu egizuz eta asmakizunen bat sortuko degu bitartean, zertan gabiltzan konturatu ez daiten.

—Asmakizuna asmatzen ba'dogu, gordeko dodaz eperrok.

\* \* \*

Pozik eldu zan Oto lagunartera. Bi eper, apaltzeko. Eta, nolako eperrak...! Orain katu bat arrapatzea falta zan. Orrela osako eban apartia: erbia eperrakin.

\* \* \*

Otoren laguntzarekin, laguntza aundia ez ba'zan be, Josepek asmatu ebazan asmatzekoak. Esan dagigun aurretik zer oitura eban Erretore jaunak: jaki batetik bestera denbora luzetxo pasatzen ba'zan, kutxillo bi artu eta alkar zorrozten asten zan. Aiztoak alkarrekin ateratzen eban soñuekin konturatzen zan Joxepe Erretorea zain eukala.

Bazkaldu aurretik, Josepak praillea bere kontura artu eta onelan esan eutson:

—Ara, jauna, gure nagusiak berealdiko kasketaldiak izaten dauz, ilgoran batez be eta ilgoran gagoz. Zur egon, gaur aldakaitza asmau dautsot-eta.

—Zer dinostazu, andratxo?

—Berorrek entzun dauana, jauna.

—Egia da aldrebeskeri ori?

—Bai, bai eta nik ez neuke nai, nere kulpaz, berorreri okerren bat gertatzerik.

—Okerra niri?

—Bai, jauna.

—Eta, zer oker?

—Aldizka belarriak ebagitea gustatzen jako, euskaldunak oso aundiak ukiten dauz-eta.

—Belarriak ebaki? Olakorik! Zelan igarriko dausat arriskuan ba'nago...?

—Erreza da: goibel jartzen ba'da eta kutxilloak zorrozten asi, anka arin-arin lasterka; bestela berorren belarrien errukia...!

\* \* \*

Batzuri-zopa jan eban asteko. Gaiñerako amorraiñak. Praillea orrenbestekin konprome zan; baiña, Erretorea eperren zain egoan eta; eperrik agertu ez. Egan egin ote dabe, pentsatzen eban berekiko. Joxepa geldi sukaldetan, etorkizunaren zain.

Aspertu zanean, Erretoreak artzen dauz mai-gaiñetik bi kutxillo aundienak eta alkar zorrozten asi zan txorroskilerorik onenak baiño obeto. Prailleari jandako amorraiñek urdailletik gora etorkozan agoraiño. Erretoreari begira-begira geratu jakon, zoratuta bezela; gero, bat-batean jagi eta urten eban korrika bazkal-gelatik.

Erretorea egoan arri ta zur prailleak nundik alde egin eban begira. Sartu da andre Joxepa estu eta larri.

—Zer dau orrek, Joxepa? Erotu egin ete da? Zoramenak emon ete dautso?

—Zoramen ederra dau orrek...

—Zer, ba...?

—Eperrak sukaldetik arrapatuta doa.

—Eperrak arrapatu...!

—Bai, jauna. Biak.

—Eper biak arrapatu ditula? Nik Errioxatik ekarritako eper ederrak...

—Biak, jauna.

—Ez ditu ba berak jango! Ez, orixe!

Kutxilloak esku banatan ditula ekin dautso praillearen ondoren. Erretore-etxearen aurreko zelaixoa pasa eta praillea maldan gora doa mendian, eskuek belarrietan ditula. Gaztea izaki. Bere atzetik Erretor jauna kutxilloak eskuetan. Alperrik ez dau arrapatuko:

—Aizu, lagun, biak ez ba'dira, bat beintzat bai...!

—Ez bat eta ez bi. Bat be ez.

Malkorrean gora zeñek arrapatu gure praillea...! Bide-erdian gelditu da gure Erretore jauna buruari atz egiñaz:

—Au dek praille xelebrea, amorraiñak jan ondoren, eperrak arrapatu... Kontxo, kontxo... Bere sermoietan ez al jok zazpigarren agindua erabilliko! Orixe bakarrik palta genduke...

\* \* \*

Oto, Pototo eta lagunak naikoa barre egin eban aretan Erretore eta praillearen kontura.

ARRINDA'tar ANES

**JUANTXO-TXIKI BEGI-BELARRI (3)**

Gogoratu zure umeak bere begiak irizita dauzala eta badauala, orretzaz gaiñera, zine-pantalla baten antzekoa, bertan berak nai dauanean barritzeko begietatik ikusiak. Gaur ez da konturatzen zenbait gauza zer diran; etorriko da, ordea, konturatuko dan eguna be...

Juantxo-txikiren begiak aurrez-aurre dozuz eta zabal-zabalik.

Bere aurrean kontuz ibili.

\* \* \*

Belarriak be baditu Juantxo-txikik.

Belarritik sartzen jakon itza, umearentzat gogoko izango bada, 'ikusteko' erakoa izan bear dau. Bere irudimenaren zine-  
oialean ikusteko modukoa; bestela, alperrik zabiltz beragaz berbetan; ez dautzu jaramonik be egingo. Ez eta kasurik be.

Silojismo astratoetan ba'zabiltz, obe dozu isiltea.

Alperrik zabiltz.

**EUSKALERRIAN EUSKERAZ**

**EUSKERAZ ZALEAK**

**1.987**

**UDAKO IKASTAROA**

**BIZKAIERAZ**

**IRU MAILLA**

**EGUNAK: ASTELENETIK EGUNARTE**  
- GARAGARRILLAN

**ORDUAK: ARRATSALDEKO 5'etatik - 7'etara**  
EDO 7'etatik - 9'etara

**ORDAÑA: 3.000 peseta.**

**IZENA EMOTeko TOKIA: EUSKERAZALEAK**  
COLON DE LARREATEGUI, 14-2  
BILBO.  
URRUTIZKINA 422.93.22


**CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES**

**DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO 1.987**

**HORAS: 5 a 7 o 7 a 9**

**PRECIO: 3.000 pesetas.**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**  
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.  
TELEFONO 422.93.22

  
**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
**BILBO AURREZKI KUTXA**

Esan, ikusten diran itzak. Edo ikusten diran gauzen itzak. Irudimenean ikusi aal izateko kontuxoa esaten ba'dautsazu, aozabalik eukiko dozu zure aurrean, itz orreik jan bearrean. Tebeo, zinema, telebista... orreik zorabiotzen dabe umea. Zergaitik? Ikusten diralako. Berdin ipuiñak be: irudimenean 'ikusi' egiten dira'ta. Geuri be orreixek gustatzen jakuz; eta ortik kontuak atara...

\* \* \*

Ari oneri jarraituz, beste zertxo bat be esango dogu. Umeak bere barruko irudimenean ikusten dauena, oso argi eta bizi ikusten dauela, bere begiz ikusten dauena baizen argi eta bizi. Ortik sortzen jakon naaste batek ipintzen dau gure umea guzurre dariola. Juantxo-txiki, guzurre-ontzi. Barruko eta kanpoko gertakizunak, guztiak dira beretzat benetako gertakizunak. Zer dan irudimenaren fruitua eta zer ez dan ezagutzeko aalmenik ez, askotan.

Ez egizu zure umetxoa gezurtizat artu.

Orrelako irudimen bizia dauan umeari ez ipuin bildurgarririk kontatu. Kalte egingo dautsoe eta bildurti biurtuko dabe. Kontuz.

Noiz beinka begi-belarriak sendagillari ikusierazo, atzera gelditu ez dedin eskolan eta gizartean. Ardura izan.

ARRINDA'tar ANES

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**